

**ESZEPTIZISMOAREN ERABATEKO ERREFUTAZIO BAT**

Idatzia badut beste nonbait baina inportantea deritzot errepikatzeari. Eta Moisesek problema, misterio santua izaten jarraitzen duen arren, despatxatu egiten du oso berba gutxirekin: Jainkoak gizona egotzi egiten du paradisu terrenaletik baina badu ere erraten ezen gizonak jakin ahal duela Eurek bezainbeste. Ez du Jainkoak erraten Bera izango dela gizona, baizik eta Berak dakien beste jakin ahal duela. Jakin ahal dugula, ezberdinak izan arren. Garbi dago ezen intelektualismo averroistaren aztarnarik ez dagoela bat ere parrafo horietan.

Azken batean Hasierako liburuan deskribatzen den historia sinbolikoa da. Zeren Eva izenak, adibidez, bizidun guztien ama esan nahi baitu. Nola izango da historia hori hori esaten bada?, etimologia hori egiten bada?. Sinbolikoa, baina mamiz betea, erakutsiaz betea.

Eta jan zuten ongiaren eta gaizkiaren zientziaren arbolatik. Eta nik demostratua dut beste nonbait ezen zientzia hori dela zientziaburua. Eta axiomatikoa da ondorioztatzea goazela ongiari buruz. Erroreen artean aurrera, egia da, bekatariak baika-ra, baina gure baitan ongia da "berez" nahi duguna, besterik nahi izatea absurdoa da, eta ez daki zertan dabilen besterik nahi duenak, halakoa nahastua dago, ez dago bere onean, edo gezurretan ari da. Eta hori da Berak ere nahi duena, eta Haren

borondatea nahi izatea da hoberena, hau da, ongiari buruz joatea.

Nik santa Maria, amaitzeko, santa Maria, Jesusen ama, erro-sarioan letanietan honela ere izendatuko nuke: regina filosoforum, erregina filosofoen... zeren sortzez inmakulatua baldin bada, ez da ondorio egiazkoa haren intelektua falaziagabekoa dela esatea?

Eta egon ere badaitezke egon sinesdun ez direnak, fedega-beak ere direla diotenak, eta Bibliaren parrafo horiek aintzat hartzen ez dutenak, baina horiek ere admititu behar didate nahiago dutela hoberena, askogatik hoberena dena, zeina izendatua izan baitaitezke, definitua, ongia bezala, eta nahiago dute ongia ezen ez gaizkia. Apostata batek, adibide estremo bat jartzearen, badezake akordio horretara iritsi gurekin. Bera ere horretan konforme dagoela. Esaten badu ere ezen Eliza katolikoan ez duela biderik ikasten.

Non orduan ikasten du halakoak biderik? Katolikoa, azken batean, universalista da. Eta ezagutza universalista da bilatzen duguna. Ezagutza bat sinbolizatzen ahal dena triangulu bat errepresentatuz. Zeren trianguluaren estudioan ikasten baita ezen hor indukzioa, definizio universalaren bilatzea, perfektua dela, hain perfektua ezen judizio sintetikoak a priori, oso sinpleak, egiten ahal baitira triangulu orok, determinatzen ahal delarik zehazki, adibidez, etorkizun den edozein trianguluren ezaugarri definitiboak. Eta pentsatzeko modukoa da arrazoibide hori. Batez ere egiazkoa delako, analisis logikorik zehatzek ere beti ateratzen baitu ondorio erlazio hori.

Baina guk ez dakigu nola iritsiko garen ezagutza universalera. Hamaika teoria egiten ahal dugu, baina ez dugunez halako ezagutzarik gaur egun, bistan dago, ez dakigu nola iristen ahal den. Jakiteko ezagutza hori eduki behar da, eta guk ez dugu ezagutza universalik gaurko egunean. Fedea dugu. Baina fede soilak ez du argitzen, ez baldin badugu ezagutza univer-

salik, nola iritsiko dugun. Halako ezagutza duenak badaki, baina ez duenak ez daki zehazki, fedea badu ere.

Eta badaiteke, matematikan gertatzen den moduan, argumentaziobide ezberdinak egotea. Egiazkoak badira bat datoz gure ondorio egiazkoekin, eta teorikoki nik ez dut ikusten bat etortzea, eta konformidade batera heltzea, ezinezkoa bezala. Bat etortzea perfektua baldin bada, zerk tratatu dezake konformidade batera iristea?

*Roman Garmendia.*